



Irakurleak mintzo

Epaileak

SANMIGUEL, Nekane

EAEko Jueces para la Democracia-ren aldetik Komisio horretako partaidea

Ez dakit Epaileon kontuoi buruzko interesa noraino den hedatua edo, askotan ohi bezala, bi kontulari eta beste bi kazetari nahikoak diren haizeok harrotzeko; azkenengo honetan (azkena, lerrook idazterakoan), gure finkotasunak, hemen bizitzeko gogoak edo beharrak, Gasteizko Legebiltzarraren aurrean eman beharreko adierazpenen bidea hartu dute. Ur horien iturria Bilboko dekanoak esandakoa: egoera politiko eta linguistikoa dela eta, Erkidego Autonomoan Espainiako beste leku batzuetan baino mugikortasun handiagoa dela.

Harritu ninduen hori entzuteak, 180 pertsonak osaturiko kolektiboa ezagutzea oso erraza baita, eta bakoitza, noiz denik, zergatik eta noiz arte dagoen hemen, jakina delako gure artean. Horregatik esan dezaket, "harrotutako" hori ez dela egia, ala, zuzenean, gezurra, eta Huelva, Galizia, Gaztela eta Kataluniako hainbat lekuko hutsune eta mugitzearen abiadak jakinda, hemengo finkotasuna askoz ere "irmoagoa" dela. Honen ondoan dituzue datu batzuk, interesik baduzue, baina ezin dugu ahaztu, halako erabakietan, egoera pertsonalak duela hitza eta indarra (zein edadetan hasten zaren lan honetan, zenbaterainoko aukera edo behar duzun zure herrian "profeta" izateko... nongoa hartzen duzun kidea... umerik gaztetan duzun... pertsonak, oro har, ditugun nahi eta gogo guztiak dira dantzan... epaileok ere, nahiz batzuek ez uste, pertsona arruntak baikara). Ez dut ezagutzen inor euskara dela eta, edo egoera politikoa dela eta, hemendik alde egindakorik. Bai batzuk, hemengo egoera berezia erabili dutenak nahi izan duten lanpostuetara iristeko, baina izenak esaniezazkidazue, eta erantzungo dizuet zergatik mugitu diren hemendik....

Idazkitxo honen helburuarekin zerikusia duelakoan, beste hau ere aipatzeko modua deritzot: Epaile izateko, bi bide edo modu daudela jakina da: oposaketa hutsa, memoriaz gai anitz ikasi eta "errezitatu", eta froga horiek gainditu, eta Epaile eskolan alditxo bat eman beharra... besterik ez. Oposaketak oso gogorak dira, baina ez bizitzaren ezagutza adinakoak, eta kontuak atera, hogeita hamar urtez azpitik Epaile izanik, eta bide hori eginda, zer jakin dezakeen gazte batek aurrean duen pertsona horren minez, pozez, miseriaz, arrazoiak... Hori bai, Epaile gehienek artean bide hau, kosta ahala kosta mantentzearen aldeko apostua egingo dago. Beste bidea, hau da, lehendik abokatu, edo idazkari, edo irakasle... eta urte askorekin honetara mugitu garenon "fintasan eta jakinduria" zalantzan jartzen dute beste kide hauek... Zein behar dago bizimodua antolatuta duzunean Epaile izateko "abenturatan" sartzekoarena, porrot egindako pertsona ez bazara? Beste bide hau egin dugunok, aurretik egindako lanen zerrenda eta meritoak aurkeztu, eta gero gure ezagutzan neurtzeko epaimahai baten aurrean egin ziguten azterketa txiki bat.

Ezin uka, bi modutara, edo bide bietatik heldutakoan artean denetarik dagoela, eta nahiz eta ingelesak, adibidez, hemengo sistemaz harritu (ezin dute sinetsi oposaketa batez izan daitekeela Epaile... askotan entzuna eta irakurria diet, Epaile izateko, beharrezko direla zentzuna, ganora, entzuten eta ulertzen jakin... eta gero, gainera, Zuzenbide pixka bat baldin badakizu, hobe...), gazte banakek errespeto eta miresmen osoa merezi dutela.